

DURANGOKO URIKO TRAFIKOA ETA APARKALEKUA ARAUTZEKO (TAO) ORDENANTZA

Hasierako onarpena: 2018ko uztailaren 19ko Ohiko Osoko Bilkuran.

BAOn argitalpena: 2018ko uztailaren 30ean, 146 zk.


http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/07/30/II-3359_eus.pdf?

Alegazioak: EZ.

BAOn argitalpen osoa: 2018ko irailaren 24an, 184 zk.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2018/09/24/II-3979_eus.pdf?

Indarrean sartu den data: 2018ko urriaren 23a.



I. KAPITULUA

ORDENANTZAREN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.- XEDEA

Ordenantza honen xedea hiri-bideen erabilera araupetzea da, aparkalekuak erabiltzaile guztien artean berdinkidetasunez banatuz eta ibilgailuen trafikoa eta kaleen oinezko erabilera bateragarri bihurtuz.

Horretarako, bide publikoko aparkaleku mugaturako (funtzionala, espaziala eta tenporala) neurriak hartu dira aparkalekuen errotazioa bermatzeko, eta haiek betetzeko neurri zuzentzaileak finkatuko dira.

2. artikulua.- APLIKAZIO-EREMUA

Ordenantza honen aplikazio-eremua Durango hiriaren udal mugartea da, xede horretarako mugatutako lurraldean.

3. artikulua.- TAO GUNEAK

TAO aparkaleku-sistema ezarriko den espazioak gune deituriko hiri-zatietan banatuko dira, eta koerlatiboki zenbakiturik eta behar bezala mugatu eta adierazita egongo dira; horretarako seinaleztapen horizontal eta bertikala erabiliko da.

Guneek honakoak mugatuko dituzte: batetik, egoiliar txartela erabili ahal izango den eremua eta, bestetik, sektore urdinerako zehaztutako gehieneko aparkaleku-aldia amaitutakoan hiru ordu igaro arte berriro aparkatzerik ez dagoen espazioa.

4. artikulua.- TAO SEKTOREAK

Ordenantza honen xede den aparkaleku-erregimena aplikatuko den lurralde eremuaren baitan, bi sektore finkatuko dira; zeinek bere aparkaleku-kudeaketa izango du eta seinaleztapen horizontalaren eta bertikalaren bidez behar bezala mugatuta eta adierazita egongo dira.

Sektore batek hainbat gune, bakarra edo gune baten zati bat hartu ahal izango du. Era berean, gune baten baitan, sektore bat edo gehiago egon daitezke.

4.1. SEKTORE LARANJA

Sektore hauek sektore hori dagoen gunean egoitza dutenek soilik erabiltzeko dira, eta behar bezala identifikaturik egongo dira.

1 GUNEA

Arandoñotorre kalea
Monagotorre kalea (Arandoñotorre/Pablo
Pedro Astarloa)
Santanoste eta Laubideta kaleen arteko
zaku-hondoa


2 GUNEA

Urkiola kalea
Anboto kalea

4.2. SEKTORE URDINA

Sektore honetako 1 eta 2 guneetan, ez-egoiliarrentzako gehieneko aparkaleku-aldia lau ordukoa izango da, aurretiaz, dagokion kuota ordaindutakoan.

Aldi hori iragandakoan, gune horretatik irten egin beharko du, eta ezin izango du bertara itzuli, gutxienez, hiru ordu igaro arte.



Egoiliarrek beren gunean dauden sektore urdinetan aparkatzerik izango dute denboran mugarik gabe eta tasa gehigarriarik ordaindu gabe, kasu honetan, esklusibitate-erregimenak babesturik ez dauden arren.

1 GUNEA

- ✓ Intxaurren kalea (Laubideta-Balbino Garitaonandia plaza)
- ✓ Komentukalea (Garitaonandia plaza-Antso Estegiz zumardia)
- ✓ San Frantzisko kalea
- ✓ Antso Estegiz zumardia (Komentukaletik Larrasoloeta kalera)
- ✓ Erretentxu kalea
- ✓ Santasusanoste kalea
- ✓ Laubideta kalea
- ✓ Sanagustinalde kalea
- ✓ Zumalakarregi kalea
- ✓ Montevideo etorbidea
- ✓ Txatxiena kalea
- ✓ Pablo Pedro Astarloa kalea (Montevideo etorbidetik Kurutziaga kaleraino)
- ✓ Kurutziaga kalea
- ✓ Juan Mari Altuna kalea (Kurutziagatik trenbideraino)
- ✓ Galtzaretako kalea
- ✓ Sanrokebide kalea (Zabale kaletik Galtzaretako kaleraino)
- ✓ Ermodo kalea (Ezkurditik trenbideraino)
- ✓ Jose Miel Barandiaran kalea
- ✓ Oiñiturri kalea
- ✓ Herriko Gudarien kalea
- ✓ Zabalekoa kalea
- ✓ Askatasun Etorbideko atzealdea, 2-4-6-8-10 eta 12 zenbakiak.

2 GUNEA

- ✓ Sasikoa kalea (Alluitz kaletik Trenbide kaleraino)
- ✓ Frai Juan Zumarraga kalea
- ✓ Saibi kalea
- ✓ Juan Antonio Abasolo kalea
- ✓ Tronperri kalea
- ✓ Trenbide kalea
- ✓ Ermodo kalea (trenbidetik Madalenaraino)
- ✓ Oiz kalea
- ✓ Dario Regoyos kalea
- ✓ Durangoko Plateruen plaza
- ✓ Landako Etorbidea (Frao Juan Zumarragatik Oiz kaleraino)
- ✓ Frantzisko Ibarra kalea (Mikelditik Landakoraino)
- ✓ Mikeldi kalea
- ✓ Madalenoste kalea
- ✓ Arkotxa kalea

* Egoiliarrentzat:

- ✓ Zumalakarregi eta Herriko Gudarien kaleak Ezkurdi plazako 1-2-3-4-5-7 eta 8 zenbakiekin lotzen dira.

4.2.- SEKTORE BERDEA


Sektore berdean "errotazio handiko" aparkalekuak egongo dira: bertan ibilgailuak aparkatzeko, dagokion kuota ordaindu beharko da eta gehienez ordu eta erdi (90 min) egon ahalko da bertan aparkatuta.

3. GUNEA

Landako osasun zentroa

II. KAPITULUA

ARAUPEKO APARKALEKU-SISTEMA



5. artikulua.- KUDEAKETA-SISTEMA

Ordenantza betetzeko, Kudeaketa eta Kontrol Sistema ezarri da, behar diren bitarteko material eta giza baliabideez hornitua.

Kudeaketa zaindarien –aparkalekuak kontrolatzeko– eta bide publikoan dauden txartel-makinen bidez egingo da batik bat.

6. artikulua.- SEKTORE URDINEKO ETA SEKORE BERDEKO KUDEAKETA-SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Kudeaketa-sistemaren ezaugarri nagusiak dira hauek:

- a) Motordun ibilgailuaren erabiltzaileak, ordainketarekin batera, bere matrikula zenbakia sartuko du, hortaz, ez du ibilgailura itzuli behar izango txartela bertan uzteko. Txartela erabiltzaileak eskatuta baino ez da emango, eta ordainagiria izango da. Kasu horietan, txartelean aparkatze-aldia, gunea eta sektorea, data eta ibilgailuaren matrikula agertuko dira.
- b) Aparkatzeko gehieneko denbora sektorerako finkatutakoa izango da, eta dagokion tarifa kobratu ahal izateko, gutxieneko denbora ordu erdikoa izango da.
- c) Sistema honi esker, aparkatze-aldia gehieneko denborara bitarte luza daiteke; betiere aldi hori agortu ez bada, eta luzapena hasierako aldia agortu aurretik eskatzen bada.
- d) Eskatutako aparkatze-aldia agortutakoan, erabiltzaileak dagoen tokitik kendu beharko du ibilgailua, eta ezin izango du berriro bertan aparkatu hiru ordu igaro arte.
- e) Aparkatzeko denbora egun batetik bestera luzatu ahal izango da, eta txartel-makinek kontrolatuko dute aparkatzeko aldiaren iraupena.

7. artikulua.- ORDUTEGIAK

Ordenantza honen xede den aparkaleku-araudia astelehenetik ostiralera egongo da indarrean, biak barne eta jaiegunetan izan ezik, 9:00etatik 13:30era eta 16:00etik 20:00era, eta larunbatetan –jaiegunetan izan ezik–, 9:00etatik 13:30era.

8. artikulua.- TARIFAK


Tarifak Udalak onartuko ditu eta dagokion Ordenantza Fiskalean jasoko dira.

9. artikulua.- SALAKETEN ZENBATEKOAK ORDAINTZEA

Araudiko 24. artikuluko A eta C motako arau-hausteengatik egindako salaketen zenbatekoa ordaintzeko aukera ematen du kudeaketa-sistema honek, betiere, ordainketa ordaindutako denbora amaitu denetik bi lanegun igaro ez bada eta, kasu guztietan, dagokien zerbitzuek ibilgailua ibilgetu edo erretiratu ez badute.

Ordaindu beharreko zenbatekoa dagokion Ordenantza Fiskalean jasoko da. Ordainketa hori gauzatzeak ez du esan nahi ibilgailuak gunea berean aparkaturik segi dezakeenik, aitzitik, berehala kendu beharko da handik.

10. artikulua.- ZAINZA eta KONTROLA



Aparkalekua antolatzeko sistema aplikatzen den lurralde-eremuaren baitako zaintza eta kontrola eskumena duten udal funtzionarioen eta TAO zaindarien zeregina da.

III. KAPITULUA

EGOILIARREN ARAUBIDEA

11. artikulua.- EGOILIARRAK

11.1.- Egoiliarren araubidea erabiltzaileak erroldaturik dauden gunean aplikatzen da.

11.2.- Egoiliar-txartela eduki ahal izango dute turismo izaerako ibilgailu, ibilgailu misto edo kuartrizikloen jabe diren pertsona fisiko guztiek, baldin eta ondoko betekizun guztiak betetzen badituzte:

- a) Ibilgailua pertsona fisikoarena izatea, ohiko bizilekua Durangon izatea, bertako biztanle gisa Udal Erroldan egotea eta txartela eskatzen den guneko lurralde-eremuan bertan dagoen helbideren batean inskribaturik egotea. Xede horretarako, ibilgailuaren jabetzat joko da Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean agertzen den bera.
- b) Gidatzeko baimena indarrean izatea.
- c) Ohiko helbidea, Udal Erroldan eta zirkulazio-baimenean agertzen dena, eta zerga-helbidea berbera izatea.
- d) Ibilgailua Durangoko Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda egotea eta zerga hori eta ibilgailua edukitzeagatik edo erabiltzeagatik udalarekin dituen betebeharrak (zerga jitekoak zein ez) ordainduta edukitzea, eta zerga ordaintzen den helbidea a) ataleko bera izatea.
- e) Ibilgailua turismo izaerako izatea edo ibilgailu mistoa edo kuartrizikloa izatea.

11.3.- Durangoko Udalak ofizioz egiaztatu ahal izango du edo interesatuari eskatu ahal izango dio benetako eta ohiko bizilekua eta egoiliar-txartelaren eskatzailearen zerga-helbidea egiazta ditzan.

11.4.- Egoiliar-txartela pertsonako eta ibilgailuko emango da, eta ibilgailuaren aurreko kristalean jarriko da. Hala ere, titular berari beste txartel bat ere eman ahal izango zaio bigarren ibilgailua haren ezkontideak edo lehenengo mailako ahaide zuzenak erabiltzen badute, eta titularraren bizileku berean bizi eta han erroldaturik badaude.

11.5.- Dena dela, bizileku bakoitzeko txartel-kopurua, gehienez, hirukoa izango da.


12. artikulua.- EGOILIAR-TXARTELAK

12.1.- Egoiliar-txartela gune baterako ematen da, eta gainerako guneeetan ez du balio.

12.2.- Txartelaren indarraldia aipatzen duen urtekoa izango da, eta prezioa dagokion ordenantzan zehartuko da.

12.3.- Kasu berezietan urtea baino indarraldi txikiagoa duten egoiliar-txartelak eman ahal izango zaizkie egoera bereziengatik, euren garaieetan sartzerik ez duten eta ibilgailuak TAO sistemaren lurralde-eremuan aparkatzen dituzten pertsonak.

13. artikulua.- EGOILIAR-TXARTELAK NOLA LORTU



13.1.-Egoiliar-txartelak lortzeko, interesatuek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Eskatera inprimaki ofizialean, behar bezala bete.
- b) Nortasun Agiria edo, atzeritarrek, Egoitza-txartela edo eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen Pasaportea. Kasu guztietan, nortasun agiri nazionalean edo egoiliar-txartelean agertzen den helbideak eta udal erroldan agertzen denak bera izan behar du.
- c) Eskatzailearen gidatzeko baimena.
- d) Zirkulazio baimena, eskatzailea ibilgailuaren jabea dela agertzen duena.
- e) Ibilgailuaren fitxa teknikoa.

Hortaz, b), c) d) eta e) ataletan agertzen diren agirien fotokopiak emango dira eta haien jatorrizkoa erakutsiko da erkatzeko.

Agiri horiek beteta, zerga-helbidea eta ibilgailua Durangoko Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda dagoela egiaztatuko da. Aurreko ataletan zehaztu diren titularitateak eta helbideak bat etorri behar dute, eta zerga eta 11.2.d) artikuluan aipatzen diren gainerako betebeharrak ordaindurik eduki behar ditu.

Eskatzaileak urtero ordaindu behar du dagokion Zerga Ordenantzaren zehazten den tasa.


13.2.- Egoiliar-txartela eduki ahal izango dute autoa errentamendu finantziarioan (leasing edo renting) edukita, ohiko bizilekua Durangon duten eta bertan erroldaturik dauden pertsona fisikoek, baldin eta ondoko betekizun guztiak betetzen badituzte:

- a) Gidatzeko baimena indarrean izatea.
- b) Ohiko helbidea, Udal Erroldan eta helbide fiskalean agertzen dena berbera izatea.
- c) Autoa izatea. Industria-ibilgailuak ez dira onartuko.
- d) Eskatzaileak bere jabetzapeko ibilgailurik ez edukitzea 11.4 artikuluan ezarritako salbuespenekin.
- e) Eskatzailea leasing kontratuan errentari gisa agertzea eta Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari gisa agertzea.

Interesatuak eskaera aurkeztuko du horretarako jarritako bulegoan, honako agiri hauek ekarriko ditu:

- a) Nortasun agiria edo, kasua bada, pasaportea edo egoiliar-txartela.
- b) Bizileku-ziurtagiria.
- c) Gidatzeko baimena.
- d) Ibilgailuaren fitxa teknikoa.
- e) Leasing edo renting kontratua.
- f) Aseguru-poliza.

Hortaz, a), b), c), d), e) eta f) ataletan agertzen diren agirien fotokopiak emango dira, eta haien jatorrizkoa



erakutsiko da erkatzeko.

a) eta d) agirietan agertzen den helbidea eta zerga-helbidea bera izango da.

13.3.- Pertsona fisiko batek enpresak utzitako ibilgailua duenean –haren jabetzapekoa izan nahiz errentamendu finantzarioko kontratu bidezkoa izan (renting edo leasing)–, egoiliar-txartela eskatzerik izango du. Horretarako, 13.2 artikuluan agertzen diren betekizunak bete beharko ditu, eta, han aipatzen den dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko du:

a) Enpresak emandako agiria, honakoa egiaztatzen duena: eskatzailea ibilgailuaren erabiltzaile bakar eta eskusiboa dela, lan-orduetatik kanpo ibilgailua erabiltzeko baimena duela eta aipatutako ibilgailua erabiltzeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenean, gauzatan ordaindu izanagatik zerga ordaintzen duela.

13.4.- Egoiliar-txartel baten titularrak helbidea edo ibilgailua aldatzen duenean, Durangoko Udalari idatziz jakinarazi behar dio, eta txartela itzuli egin beharko du.

13.5.- Jabetzapeko ibilgailua dutenek ezin izango diote Ordenantza honetako 13.2 eta 13.3 ataletan xedatzen denari heldu.

IV. KAPITULUA

GREMIOAK

14. artikulua.- GREMIOEN TXARTELA


14.1.- Honako jarduera ekonomikoak lortu ahal dute gremioen txartela: igeltserotzak, arotzeriak, eskaiolistak, pintoreak, zamalanak, kristaleria, garbiketa-lanak, obra zibileko lanak eta konponketa zerbitzuak, betiere, Durangon kokatuta badaude eta artikulua honetan zehazten diren baldintza guztiak betetzen badituzte.

14.2.- Txartel-eskatzaileek honako baldintza guztiak bete behar dituzte:

- a) Etxez etxeko konponketak, obra txikiak edo antzekoak egiteko zerikusia duen jardueraren bat egiteko baimena izatea. Baimenak Durangoko Udalak luzatua behar du izan.
- b) Ibilgailu misto moldagarriak baimenaren titularraren izenean behar du egon, edo bestela, finantza-alokairuan behar du eduki (leasing edo renting)
- c) Ibilgailuak izaera komertziala izan beha du, eta behar den moduan errotulaturik egongo da.
- d) Ibilgailuak alta emanda egon behar du Durangoko Udalaren trakzio mekanikozko ibilgailuen zergaren erroldan, eta zerga ordainduta egon behar da.

14.3 Txartela lortzeko honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a) Eskaria eskari-orri ofizialean aurkeztu behar da.
- b) Ordezkararen Nortasun Agiri Nazionala.
- c) Gida-baimena, bertan zehaztu behar jarduera ekonomikoa dela ibilgailuaren jabea.
- d) Indarrean dagoen aseguru-poliza.
- e) Leasing edo renting kontratu jatorrizkoa eta beronen fotokopia.



14.4.- Udalak egokien deritzon agiriak eskatu ahal dizkie interesatuei, beti ere, artikulua honetan zehazten diren aspektuak konprobatze aldera.

14.5.- Udaleko zerbitzuek konprobatu ostean eskatzaileak betebeharrak guztiak betetzen dituela, gremio-baimenduaren bereizgarria emango zaio eskatzaileari Udal honetako ordenantza fiskaleko dagokion tasa ordainduta eta gero.

14.6. Arau orokor moduan, jarduera bakoitzeko bereizgarri bi baino ez da emango.

14.7. Bereizgarriak urte naturaleko indarraldia izango, eta baimendu egiten dute ibilgailuak horretarako jarritako bide publikoetan aparkatzea.

14.8.- Ibilgailua aldatuz gero edo jarduera lekuz aldatuz gero, dagokion udal zerbitzuei jakinarazi behar zaie ibilgailu edo kokagune berriaren bereizgarria lortu ahal izateko, beti ere, kokagunea Durangon badago.

V. KAPITULUA

BESTELAKO ARAUBIDE BEREZIAK

15. artikulua.- ARAUBIDE BEREZIAK

15.1.- Ordenantza honetan jasotzen diren aginduak ez zaizkie aplikatuko kapitulu honetan jasotzen den txartel-etako batekin identifikaturik dauden ibilgailuei. Horiek, hain zuzen, kapitulu honetan xedatutakoari atxikiko zaizkio.

Txartel-mota hori honako ibilgailu hauei emango zaie:

- a) Zerbitzu ofizialeko ibilgailuei, behar bezala identifikaturik daudenean eta Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren edo beste erakunde batzuen jabetzapekoak direnean, zuzenean zerbitzu publikoa eskaintzeko esleiturik daudenean eta zerbitzu horiek betetzen ari direnean.
- b) Zerbitzu publikoak ustiatzen edo haiek mantentzen dituzten enpresetako ibilgailuei (industria-ibilgailuei bereziki), behar bezala identifikaturik daudenean, Durangon zerbitzu publikoa eskaintzeko zuzenean esleiturik daudenean eta zerbitzu horiek betetzen ari direnean.
- c) Osasun publiko zein pribatuko pertsonalaren ibilgailuak, baldin eta etxez etxeko osasun asistentziarako erabiltzen badira.


15.2.- Araubide honi helduz, txartel berezia eskatu eta erabiltzeko salbuetsirik daude kanpotik identifikaturik dauden Segurtasun Taldeetako ibilgailu ofizialak.

15.3.- Aurrekoek gain, kasu berezietan eta jardueraren arabera duen interes publikoa kontuan hartuta, Alkatetzak txartel bereziak eman ahal izango ditu eta xede horretarako zehaztutako prozedurari jarraiki tramitatuko dira.

16. artikulua – TXARTEL BEREZIAK

16.1.- Txartel bereziak Durangoko Udalak emango ditu, eta ez dute baliorik izango aipatutako herri-administrazio horrek egindako ereduari lotzen ez zaizkion bestelako agiriek edo identifikazioek.

16.2.- Txartel bereziek Ordenantza honek aipatzen dituen sektoreetan eta guneeetan inolako mugarik gabe aparkatzeko baimena ematen diete titularrei.



16.3.- Txartel bereziak eskatzeko, honako datu eta agiri hauek ekarri behar dituzte interesatuek:

- Ibilgailuaren titularra
- Ibilgailuaren matrikula
- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia
- Ibilgailua jarduera ofizial edo publikoari loturik dagoelako egiaztageria
- Ibilgailuak Durangon eskaintzen duen zerbitzua
- Egoitza

Txartela dagokion Zerga-ordenantzan zehaztutako tarifa ordaindutakoan emango da.

16.4.- Txartel bereziek urtebeteko gehieneko indarraldia izango dute, eta bertan honako datu hauek agertuko dira:

- a.- Identifikazioa, dagokion letrarekin.
- b.- Ibilgailuaren matrikula.
- c.- Txartelaren balio-aldia.
- d.- Erabiltzeko ordutegia, mugatua bada.
- e.- Txartela baliagarria den eremua, mugatua bada.

16.5.- Txartel bereziak ibilgailuaren aginte-panelaren gainean ipiniko dira, kanpotik erraz ikusteko moduan.

VI. KAPITULUA

XEDAPEN ERKIDEA


17. artikulua.- XEDAPEN ERKIDEAK

17.1.- Durangoko Udalak behar beste egiaztapen egin ahal izango ditu ofizioz ordenantza honetan jasotzen diren txartelak eman aurretik, bertan exijitzen diren baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

17.2.- Ordenantza honek aipatzen duen dokumentazioaz eta, kasu bada, egiten diren egiaztapenez gain, behar bezala justifikaturik ez dagoen edozein atal egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkio interesatuari Durangoko Udalak.

17.3.- Txartelen titular guztiek derrigor emango diote Durangoko Udalari, 15 asteguneko epean, honako edozein arlotan gertatutako aldaketen berri: ibilgailuen titulartasunean, jabearen bizilekuan eta txartelak emateko kontuan hartu ziren gainerako datuetan eta inguruabarretan. Horrela egiten ez badute, Durangoko Udalak txartela kendu eta hiru urtera bitarte berritzea ukatzeko eskumena izango du, bai eta, kasu bada, aplikagarri diren zehapenak aplikatzeko ere.

17.4.- Egoiliar-txartela edo txartel berezia edukitzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa da txartelaren titularrak eta errentamendu finantzarioaren (renting edo leasing) kontratuaren hartzaileak ibilgailua edukitzeagatik edo erabiltzeagatik udalarekin dituen betebeharrak (zerga jitekoak zein ez) ordainduta



edukitzea.

VII. KAPITULUA

JARDUERA BEREZIA. ZAMALANAK

18. artikulua.- ZAMALANETARAKO GUNEAK

Zamalanetarako eremu edo gune gisa prestaturik dauden aparkalekuak dauden tokiko TAO sistemako gune eta sektoreetakoak dira.

Zamalanetarako eremu eta guneak jarduera horretarako gordeta daude beren beregi, xede horretarako finkatu den ordutegiaren barruan.

19. artikulua.- ZAMALANAK

19.1.- Zamalanak xede horretarako ezarritako eremu eta guneetan egingo dira, eta horretarako finkatutako ordutegiaren barruan. Erabiltzaile horiek ez dute tasarik ordaindu behar izango, baina gune horietan egoteko gehieneko epea **dagokion** seinaleztapenean zehazten dena izango da.

19.2.- Profesionalek, zamalanetarako, baimenduriko ibilgailuak erabili behar izango dituzte derrigor.

20. artikulua.- DENBORA-MUGAPENA

Durangoko Udalak komenigarritzat jotzen dituen sistemak eta mekanismoak ezarri ahal izango ditu aurreko artikuluan aipatzen den denbora-muga betetzen dela egiaztatu eta kontrolatzeko.

VIII. KAPITULUA

TAXIAK, MINUSBALIATUAK ETA ANBULANTZIAK

21. artikulua.- TAXIAK, MINUSBALIATUAK ETA ANBULANTZIAK


Ez daude ordenantza honi lotuta (aparkatzeko denbora- eta espazio-mugapena eta ordainketa), seinaleztapen espezifikoak edo kontrako arauen bat izan ezik, eta zerbitzua eskaintzen ari badira.

- a) Auto-taxi ibilgailuak, gidaria bertan denean.
- b) Osakidetzako, Gurutze Gorriko edo bestelako osasun-erakundeetakoak diren edo haientzat lanean ari diren anbulantziak. Aipatutako ibilgailuak kanpotik behar bezala identifikaturik egongo dira, eta gidariak bertan egon behar du.
- c) Minusbaliotasuna duten pertsonen ibilgailuak, gidaria titularra bera denean edo minusbaliatua bere ibilgailuan beste norbaitek garraiatua bada, betiere, "minusbaliatuentzako aparkaleku-txartelaren" jabe bada eta aurreko kristalean jarrita badauka bereizgarria.

IX. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

22. artikulua.- XEDAPEN OROKORRAK



22.1.- Ordenantza honetako edozein artikulua urratzeak edo hausteak trafikoa antolatzeke araua hautsi izanaren jite bera izango du, eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan finkatuko denaren arabera zehatuko da. Era berean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatuaren V. Kapituluak, hura garatzeko Araudia eta atxikiriko gainerako legeko xedapenak ere aintzat hartuko dira.

22.2.- Arau-hausteei zehapenak ekarriko dituzte eta horiek ezartzeko, Trafikoaren, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren eta Bide-segurtasunaren alorreko zehapen-prozeduraren araubidea onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak adierazitakoa hartuko da oinarritzat.

22.3.- TAOko zaindarien, udaltzainek eta horretarako eskumena duten gainerako funtzionarioek ipiniko dituzte ordenantza honen arau-hausteei dagozkien salaketak.

22.4.- Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian, Bide-segurtasunari buruzko Legean eta hori garatzeko ematen diren gainerako araudietan jasotzen denari atxikiko zaio.

23. artikulua.- ARAU-HAUSTEAK

Arau-haustea izango da Ordenantza honetan jasotzen den edozein arauen aurka egin edo ez betetzea. Arau-haustek lau azpi-ataletan banatzen dira:

23.1.- A motako arau-haustek: 50 €

- a) Ordaindutako aparkatze-denbora gainditzea, ordubete baino gutxiago.
- b) Zamaletarako gune batean aparkatzeko denbora gainditzea.

23.2.- B motako arau-haustek: 80 €


- a) Ibilgailua sektore laranjan aparkatzea, gune horretako egoiliarra izan gabe eta horretarako baimenik eduki gabe.
- b) Sektore urdinean ordaindu gabe aparkatzea, ibilgailuak egoiliar-txartela edo txartel berezia duen kasuetan izan ezik.
- c) Aparkatzeko aldia amaitutakoan, hiru orduko epea igaro aurretik berriro ere gune berean aparkatzea.
- d) Ordaindutako aparkatze-denbora gainditzea, ordubete edo gehiago.

23.3.- C motako arau-haustek: 120 €

- a) Aparkatzeko tiket edo txartel iraungiak erabiltzea.
- b) Egoiliar-txartela dagokion gunetik kanpo erabiltzea.
- c) Ezinduentzako aparkatzeko txartela erabiltzea haren titularra ibilgailuan ez doanean.

23.4.- D motako arau-haustek: 120 € eta egoiliar-txartela kentzea urtebetez (urte 1).

- a) Egoiliar-txartela erabiltzea, hari atxikirik zegoen ibilgailuaren jabea eskualdatu ondoren edo egoiliar-jitea galdu ondoren.



- b) Txartelen titularrek honako betebeharrak ez betezea: Durangoko Udalari, 15 asteguneko epean, honako edozein arlotan gertatutako aldaketan berri ematea: ibilgailuen titulartasunean, jabearen bizilekuan eta txartelak emateko kontuan hartu ziren gainerako datuetan eta inguruabarretan.
- c) Aparkatzeko tiket edo txartel manipulatuak, baliogabeak edo faltsutuak erabiltzea.
- d) Urtebetean edo/eta C motako hirugarren arau-haustea egitea.

24. artikulua.- ZEHAPENAK

24.1.- Ordenantza honetan jasotako arau-haustea isunaz zigortuko dira. Isunen zenbatekoak artikuluko honen 2. atalean zehaztu dira. Horrez gain, dagokion txartela kenduko zaio 22. artikuluko 4. atalean jasotako arau-haustea bada (D motakoa), eta txartelaren titularrak ezin izango du beste txartelik (ezin motatakorik) lortu, gutxienez urtebete eta gehienez hiru urte igaro arte.

24.2.- A motako arau-haustea 30 euroko isunarekin zigortuko dira. B, C eta D motako arau-haustea 60 euroko isunarekin zigortuko dira.

25. artikulua.- IBILGAILUA IBILGETZEA

25.1.- Ibilgailua ibilgetu eta erretiratu egingo da, baldin eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu batekina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 104 eta 105. artikuluek hurrenez hurren aipatzen duten egoeraren bat gertatzen bada.

25.2.- Egoera horietan, interesatuak ezin izango ditu 9. artikulua aipatzen dituen arau-haustea berehala ordaindu ez eta hobaria jasotzeko eskubidea erabili ere.

25.3.- Bide publikotik ibilgailuak kentzeko zerbitzuen prestazioak eta ibilgailua udal biltegietan edukitzeak dagokien Zerga-ordenantzan jasotzen diren tasak eragingo dituzte, eta ibilgailua itzuli aurretik ordaindu beharko dira, kasuan kasu ezar litezkeen zehapenen kalterik gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA


Alkatetzak, teknikarien proposamen arrazoituan oinarrituta, etenean utzi ahal izango du ordenantza honen aplikazioa lurralde-eremu osoan edo zati batean, hark egokitzen jotzen dituen aldietan edo egunetan, trafiko-itoarekin, aparkalekuekin edo jendearen intereseko beste edozein inguruabarrekin zerikusia duten arrazoiengatik.

BIGARRENA

Ordenantza hau aplikatzeko lurralde-eremua gaur egun indarrean dagoen gune eta sektoreetara hedatzen da, arlo horretan geroago egin litezkeen zabalkuntza, murrizpen edo aldaketan kalterik gabe.

HIRUGARRENA

Alkatetzak, behar bezala justifikaturiko larrialdien batengatik edo jendearen interesen mesedetan, ordenantza honek aipatzen dituen txartelen indarraldia aldatu –luzatu edo murriztu– ahal izango du.



AZKEN XEDAPENAK

LEHENA


Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hogeï egunera jarriko da indarrean.

BIGARRENA


Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian, aplikagarri zaion guztian, osagarri gisa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea, Zirkulazio-araudia eta hura garatzeko gainerako xedapenak hartuko dira kontuan.


HIRUGARRENA

Zehapenetarako eta arau-haustek berehala ordaintzeko, ordenantza honetan zehaztu diren zenbatekoak berrikusi ahal izango dira eta, kasu guztietan, hiru urtean behin eguneratuko dira Alkatetzaren Dekretu bidez.



GUNEEN MAPA





Durangon, 2018ko irailaren 13a.

Alkatesa,

Izp.: Aitziber Irigoras Alberdi